

OÑATIKO UDALA

BIDEO AKTAK PROPOSAMENA 2019

MIREIA LARRAÑAGA
688690002
mlarranaga@goiena.eus

1. OHIKO OSOKO BILKURAK GRABATU ETA BIDEO-AKTAK SORTZEKO PROPOSAMENA. STREAMING BIDEZ ZABALTZEKO AUKERA ERE BADAGO.

Eskaintza honetan jasotzen da Goiena Komunikazio Taldea Koop. Elk. enpresak landutako proposamena. 2018an Oñatin egingo diren osoko bilkurak grabatu eta bideo-aktak sortzea. “Bideo-aktak” propio sortutako software-a da, udalak sortutako bideoak ikuskatzeko plataforma da. **Honek ahalbidetzen du osoko bilkurak grabatu ahala idazkariak bideo-akta plataformara igotzea eta sinatuta eta onartuta geratzea osoko bilkura bukatzen den momentuan.**

Aipatutako software-aren bitartez, idazkariak bideoa plataformara igotzen duenean Goienan dagoen kazetariak osoko bilkurako gai zerrenda eta hizlariak lotuko ditu minutajearen bitartez. Horrek ahalbidetuko du, zinegotziak, herritarrak... zuzenean joatea gai zerrendatik interesatzen zaien puntura eta baita hizlarietara ere. Osoko bilkurak zuzenean emateko aukera ere egongo da streaming bidez. Idazkariak interpretatu duenari zuzen-zuzeneko iritziak hartzen dio lekua eta bi gauza lortzen dira: idazkariari denbora aurrezteka (ez dauka akta tekleatu beharrik); bestetik, “nik ez nuen esan hori, esandakoa izan zen...” moduko esaldiak baztertzeka. Beraz, denborak aurreztera datorren sistema da “bideo-aktak”. Badugu esperientzia bideo aktak sortzen. Bergarako Udaleko osoko bilkurak grabatu eta bideo-aktak sortzen ditugu. Bideo akten gaiak nola funtzionatzen duen ikusteko, aukera polita litzateke hurrengo osoko bilkurara etortzea.

Adibidea:

Ohiko osoko bilkurak grabatu eta bideo-aktak sortzeko proposamena

pl170925



Batzararen eguna 2017-09-25
Hasiara ordua 2017-09-25 19:32:02
Egoera Argitaratua

Erantsitako Fitxategiak

[Sinadura](#) 0,3 MB

Batzarreko gaiak

- 00:00:42 1. 2017ko uztailaren 17an, abuztuaren 31n eta irailaren 8an egindako bilkuren akten onarpena
- 00:01:31 2. Alkatearen jakinarazpenak
- 00:10:55 3. Garabi-kamiolarien gidari lanpostuaren balorazio berriaren onarpena
- 00:11:16 4. Langileen ordainsarien Igoeraren onarpena
- 00:11:44 5. Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideei dagozkien zarataren mapa estrategikoei egindako alegazioak baieztatzea
- 00:12:10 6. Berankortasunari eta Ordaintzeko batez besteko epeari (OBBE) buruzko informazioa. 2017-2 epea (Udal administrazioen Fakturen erregistroa eta berankortasuna)
- 00:12:32 7. Golaizora doan bide publikoan hobekuntzak egiteko hartu behar den lursailaren dohaineko eskualdatzearen eskaintza, Santa Marina parrokiak egina
- 00:19:31 8. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatuko litzatekeen D7 eranskina onartzeko proposamena
- 00:19:58 9. Gure Esku Dago-k aurkeztutako mozioa
- 00:23:06 10. Kataluniarekin bat, EH Bilduk aurkeztutako mozioa
- 00:36:47 11. Gifosatoari eta beste herbizida batzuei buruz irabazik eta EH Bilduk aurkeztutako mozioa
- 00:45:43 12. Irailaren 8ko bilkuren aktaren onarpena
- 00:46:23 13. Udaleko aurrekontuaren 5. kreditu aldaketaren berri ematea
- 00:46:36 14. Udaleko aurrekontuaren 6. kreditu aldaketaren berri ematea
- 00:46:52 15. Eskaerak eta galdera

Kategoriak

- 00:00:42 Ayuntamiento
- 00:01:31 Urbanismo
- 00:10:55 Servicios sociales
- 00:11:16 Ayuntamiento
- 00:11:44 Urbanismo
- 00:12:10 Ayuntamiento

Hizlariak


- 01:24:27 Maria Elena Lete (EAJ-PNV), alcaldesa
- 01:24:01 Aierit Lizarralde Ortiz de Zarate (Irabazi)
- 01:23:29 Maria Elena Lete (EAJ-PNV),

Etiketak

- 00:01:43 Bolu
- 00:01:53 Frontón de Bolu
- 00:01:53 Consulta
- 00:11:00 Empleo
- 00:12:32 Golaizoz
- 00:12:35 Parrokia Santa Marina



Ohiko osoko bilkurak grabatu eta bideo-aktak sortzeko proposamena



LANTALDEA

3 langileko taldea erabiliko dugu: 1 Errealizatzailea eta lantaldeko koordinatzailea, 1 kamera operadorea eta 1 kazetaria bideo akten plataforma elikatuko duena.

Osoko bilkura bi kamerataraz grabatuko dugu, hau da, fisikoki bi bideo kamera eramango ditugu baina kamera operadore bakarra egongo da. Kamera operadore bat kamera fisikoarekin ibiliko da grabatzen eta beste kamera fisikoa operadorerik gabe egongo da plano orokorrak grabatzen. Osoko bilkura grabatzera bi pertsona joango dira. Hirugarren pertsona kazetaria izango da baina ez da osoko bilkurara joango, kazetariaren lana bideoa plataformara igo ondoren hasten da eta lan hau Goienan egingo du.

Materialaren aldetik:

- **Tricaster** sistema aurreratua erabiliko da, errealizazioa egiteko.

Ohiko osoko bilkurak grabatu eta bideo-aktak sortzeko proposamena



- **Bi kamera:** Telebista profesionala egiteko erabiltzen diren kamerak dira Eibarko Osoko Bilkuran erabiltzeko proposatzen duguna. Bata plano orokorrerako erabiliko da eta finkoa izango da. Bestea izango da plano zehatzagoak hartzeko erabiliko dena.
- **Azpitituluak:** Osoko bilkurako gai zerrenda agertuko da bertan, baita aldiro hitz egiten dutenen izenak ere.
- **Soinua.** Azterketa txiki bat egingo da soinua nola hartu behar den ezagutzeko. Eskatuko da soinu mahaitik toma bat izatea telebistan erabili ahal izateko. Soinua, beraz, Eibarko Udalaren soinu mahaitik datorren horixe bera izango da.
- **Argizatzea:** Foko zuriak erabiliko dira aretoa argizatzeko.
- **Internet konexioa:** Pleno aretotik gehienez 30 metrotara, kable bidezko Internet konexio bat egon behar da. Streaming-a egin ahal izateko behar diren portuak irekita izan beharko ditu konexio honek. Streaming seinale hau gure zerbitzarira (Bideometa) bideratuko da; Bideometak ahalbideratuko digu momentuan dauden konexio kopurua zenbatzen.

Ohiko osoko bilkurak grabatu eta bideo-aktak sortzeko proposamena



Funtzionamendua:

Ohiko osoko bilkura egiten den egunean bertan ordua baino bi ordu lehenago montaje lanak egingo dira, material dena prest agertzeko. Udal plenoa grabaketa egiten den bitartean Udalak izendatutako webgunetik (<http://www.eibar.eus/> edo nahi diren guztiak) streaming bidez zuzenean, munduko edozein lekutatik eta edozein gailuetatik (webgunea, tableta, mugikorra...) jarraitu ahal izango da Osoko Bilkura. Grabatutako bideoa idazkariak onartutako akta moduan igoko du plataformara segurtasun neurri guztiak bermatuz. Ondoren kazetariak plataforman sortutako minutajea bideoari gehituko diogu eta Eibarko Udalaren webgunean ikusgai egongo da edonorentzat.

AURREKONTUA

Oñatiko ohiko osoko bilkurak grabatu eta bideo-akta sortzea
(saio bakoitza)

990 euro + BEZ

OHARRA:

- Goiko proposamenean Bez-a ez dago barne.
- Urteko hostingaren ordainketa ere egin behar da. Goienak propio erosi duen zerbitzariaren kostua urtean 130 euro (bez barne) izango litzateke.**
- Ez ohiko osoko bilkurek %25eko gainkostua izango dute.**
- Goienak tricasterra eramango du eta saioa zuzenean ekoiztuko da bertan.
- Oñatiko bideo aktak martxan jartzeko egokitzapenen bat behar bada aurrekontua aurkeztuko da berau onartzeko.
- Soinua ez du Goienak kudeatuko, aretoan bertan dagoen soinu mahaitik hartuko du audio seinalea.
- Goienak, saio hauek emititu ahal izango ditu.
- Osoko bilkuraren iraupena gehienez hiru ordukoa izango dela kontutan hartuta egindako aurrekontua da.

2. ENPRESAREN INFORMAZIOA

Eskaintza honetan jasotzen da Goiena Komunikazio Taldea Koop. El. enpresak dituen gaitasunak, antzeko lanetan izandako esperientzia, eta proiektua burutzeko aurkezten dituen baliabide materialak eta pertsonala.

3. GURE BURUAREN AURKEZPENA

Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte 2000. urtean sortutako komunikazio kooperatiba da. Hala ere, 26 urteko esperientzia du euskarazko toki hedabideak kudeatzen. Euskara elkarteek kooperatiba bat bultzatu zuten euskarazko komunikabideak indartu nahian, non langileak ere bazkide diren.

Kooperatibaren produkzioa bi zutabetan oinarritzen da: hedabideen kudeaketan eta kanpo produkzioetan. Hau da, bezeroari zuzendutako zerbitzuen eskaintzan.

Estatutu Sozialetako bigarren artikuluan aipatzen denez, **Goienaren helburua** honako hau da:

- *Herritarrei informazioa, entretenimendua eta kultura prestakuntza eskaintzeko era guztietako komunikabideak antolatzea: ikus-entzunezkoak, prentsa bidezkoa zein komunikabide elektronikoen bidezkoak.*

- *Herritarren euskarazko gaitasuna, sentiberatasuna eta erabilera areagotzea eta euskal kultura sustatzea, helburu bera duten elkarte eta erakundeekin elkarlanean jardunez.*

- *Euskarazko hedabideen zabalkundea eta kalitatea areagotzea, beste lurralde batzuetako elkarte eta enpresekin elkarlanean jardunez.*

Lau **hedabide** kudeatzen ditu: idatzizko prentsa, telebista, irratia eta Internet. Urteko produkzioa honakoa da:

- **Idatzizko prentsa:** Bi aldizkari kaleratzen dira astero, Bat, doan banatzen da, **Goiena papera** ostiralero 18.200 ale bederatzi herritan (Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati) . **Puntua** berriz, ordaindutako harpidetzaren bitartez banatzen da eta gaur egun 4.100 harpidedun ditu. Astero banatzen da eta urtean 44 zenbaki kaleratzen dira.
- **Telebista: Goiena Telebista** da euskaraz emititzen duen Debagoieneko toki telebista. 62.000 biztanlerengana heltzen da eta seinalea bederatzi herritara

Ohiko osoko bilkurak grabatu eta bideo-aktak sortzeko proposamena

- zabaltzen da (Debagoiena eta Aramaio). 168 ordu emititzen ditu astero. Gaur egun, mundu osora zabaltzen da telebista internet bidez. (Ikus www.goiena.eus)
- **Irratia:** Goienak hainbat programa egiten ditu **Arrasate Irratian**. 365 egunean 24 orduz emititzen du.
- **Internet:** Lau dira arlo honetan kudeatzen dituen produktuak: *Goiena.eus*, *Aurreztu.com*, blog komunitatea, *Gida Komertziala* eta azkena *Guraso.com*. **Goiena.eus** Debagoieneko

atari euskalduna da. Bertan, Aramaio eta Debagoiena osatzen duten herrietako informazioa jaso daiteke. Herriz herriko informazioa egunero berritzen da. (Ikus www.goiena.eus)

Goienak hedabideak kudeatzeaz gain, beste produktu batzuk ere ekoizten ditu. Honen adibidea dira urtero kaleratzen den **Gida komertziala** (paperean eta interneten), **Aurreztu.com** deskontuen webgunea edo Kantari ikuskizuna.

Kanpo produkzioak:

Bezeroen beharrei erantzun zuzena eman nahi die Goienak. Hori dela eta, hainbat produktu egiten dira bezero jakinei begira. Honen adibide dira azken urteetan Durangoko Azokan, azokarako propio egindako Azoka Telebista (streaming zein telebista bidez) edota *Ekogune* programa, Kutxa Fundazioarentzat eta *Pedalka* saioa Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat. Partikularrentzat webguneak sortu eta kudeatzen ditugu; adibidez Elgetako eta Urkabustaizeko Udalen webguneak.

Eta aldizkarigintzan, komunikazio kanpainen plangintza, irudi korporariboen sorkuntzan eta medioetarako iragarkien diseñuan eskarmentua handia du Goienak. Honen adibideak dira ALEA aldizkariaren diseñua eta aholkularitza lanak edota Debagoieneko Mankomunitaterari eta Gerediaga elkartearentzat egindako komunikazio kanpainak. Aurten Donostia 2016 egitasmoko aldizkaria diseinatu eta edukiz hornituko dugu lau hizkuntzatan urte guztian zehar.

Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak Arrasaten du bere egoitza.

Hona hemen Goienaren **datu batzuk**:

- Langile kopurua: 44 langile. 27 emakumezko eta 17 gizona.
- Urteko aurrekontua: 2 milioi euro.
- Bezero kopurua: 3.800.

4. BALIABIDE MATERIALAK

Produkzio zentroa Arrasaten kokatuta dago. 660 metro koadroko egoitza da eta bertan harreragunea, telebistako platoa, ikus-entzunezkoen produkziarako lau estazio-gune, errealizazio gunea, erredakzioa, irratiko lokutorioa eta hainbat bilera gela ditugu. Goienak, Mac plataformarekin lan egiten dugu eta punta-puntako ordenagailuak eta programak instalatuta ditugu. Berrikuntza da gure beste ezaugarri bat. Hori dela eta, azken euskarri eta formatuak erabiltzeko aukera izaten dugu. Denak sarean konektaturik daude. Egoitza osoan WIFI-a daukagu.

Erredakzioan: Indesign, Illustrator, Photoshop... programekin lan egiten dugu; diseinu grafikoko eta sormenerako liburutegia, argazki kamerak, eskanerrak, fotokopiagailua, koloretako inprimagailuak eta bestelako gailuak (CDak pertsonalizatzeko aukera...) ditugu.

Baliabide materialak :

- 40 ordenagailu IMAC
- 12 ordenagailu PC
- 6 ordenagailu eramangarri, Mac book Intel Core 2 Duo
- Wav eta MP3 formatuan grabatzen duen grabagailu digitala
- 7 Argazki kamera PANASONIK FZ-38
- FTP zerbitzua (4 GB)

Ikus-entzunezko arloan, ekipamendu osoa daukan platoa daukagu. 120 metro karratu ditu, argizatze sistema egokitua, kamera errobotizatuak, Kroman lan egiteko bitartekoak eta lau lan estazio-gune daukagu. Goienak telebistan erabiltzen duen sistema digitala da. Kanpo ekoizpenak egiteko HDV formatua erabiltzen dugu. Honek definizio handian grabatzeko aukera ematen digu eta edizio sisteman ere definizio handia (HD) erabiltzen dugu. Definizio estandarrekin (SD) alderatuz ia lerro bikoitza du. Post-produkzioa ere digitalean egiten da irudi eta soinuaren kalitatea bermatuz. Hainbat formatutan lan egiten dugu: mov, avi, mpeg, h264... Hala ere, beste formatu batzuetara egokitzeko aukera ere badaukagu.

Ezaugarri nagusiak:

Programak:

- Ediziorako programa: Final Cut X Pro studio 3 eta Adobe Premiere Pro
- Motion graphics: After effect.

Baliabide materialak:

- Macpro lan estazioa
- Imac 27" lan estazioa
- Sony HVR-Z1E kamara digitala, optika ezberdinekin
- Panasonic HPX 301 kamara, P2 txarteekin lana egiten duena
- Panasonic AG-HPX171E kamara
- Lowel DV Pro 55 Kit argiztapen ekipoa
- Iphone 5, 3G konexioarekin eta aplikazio profesionalekin kameralarien lana errazteko eta interneteko igoera bideratzeko erabiltzen ditugu: fotometroa, eremu-sakonera neurtzeko...
- Plataforma propioa bideoak interneten ikusi ahal izateko.
- Streaming zerbitzua zuzeneko emisioak bideratzeko.
- Tricaster Broadcast: kanpo grabaketak egiteko tresna eramangarria. Edozein leku izan daiteke telebistako platoa. Makina honek errealizazio gela osoa edozein lekutan izatea ahalbideratzen du, beraz, tresna egokia da ekitaldien grabaketa eta post-produzioa bertan egiteko.

5. GIZA BALIABIDEAK

Goiena Komunikazio Taldea esperientzia handiko taldea da informazioaren tratamenduan eta bezeroen kudeaketan. 44 langile ditu gaur egun Goienak, 27 emakume eta 17 gizonezko. 34 lan bazkide ditu eta %81ak Unibertsitateko ikasketak ditu. Guztiak euskaldunak dira. Goienako lantaldean askotariko profila duten profesionalak daude: kazetariak, diseinatzaileak, ikus-entzunezko teknikariak, publizitate eta marketin alorrekoak, informatikariak, ekonomialariak...

Nahiz eta talde finko batek egingo lukeen lana, hainbat profesional ditugu lana burutzeko gaitasunarekin. Hala, talde finkoan edozein gertaera dela-eta ordezkapenik egin behar izango balitz, Goienako talde osoak bermatzen du lana kalitatez eta epean burutuko dela.

6. BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

Gure balore erantsia medioen ezagutza eta jatorrizko hizkuntza euskara izatea da. Hau da, albiste bat prestatzeko orduan, ondo dakigu nori zuzendua dagoen, erabiliko den hedabidea eta mezua nola bideratu behar den ikusleengana heltzeko.

Hizkuntzari garrantzia handia ematen zaio, honen adibidea dira, 2008. urtean **Urrezko Bikain** ziurtagiria jaso izana Eusko Jaurlaritzaren eskutik. 2006 urtean **Bai Euskarari**-ren “Lana eta Zerbitzua euskaraz” ziurtagiria jaso du.

Goienak jasotako sariak:

2002. Goienkaria aldizkariak (gaur egungo Goiena paperak) Argia Saria, idatzizko prentsaren atalean.

2003. Goienak editore lana egiten zuen Sustatu interneteko atariak (Goienak eta Code & Syntax Eibarko teknologia berrien enpresak sortua) Argia Saria, Interneteko atalean.

2003. Aipamen bat Rikardo Arregi sarietan Goienkaria-n argitaratutako erreportaje baten ganean. Besteak beste, Billy Petersen aktore, zuzendari eta produktore iparramerikarra (CSI) Oñatin egon zela kontatzen zuena, eksklusiban.

2004. European Newspaper Award saria Goienkaria-k, diseinu grafikoaren alorrean. European ondoen diseinatutako papereko lokal onenaren saria.

2006. Bai Euskarari ziurtagiria Goiena Komunikazio Taldeak, Kontseiluak emanda.

2008. Urrezko Bikain Euskarazko Ziurtagiria Goiena Komunikazio Taldeak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskalit fundazioak emanda.

2011. Rikardo Arregi Sari berezia Goiena Komunikazio Taldeak.

2014. European Newspaper Awards, Goiena Papera, 2013ko urriaren 18ko azalarengatik

2015. Rikardo Arregi Sari Nagusia, *Jon Salaberrri* ikus-entzunezkoarengatik

2017. **Rikardo Arregi Sari Nagusia**, “**Kulturizketak**” ikus-entzunezko programari.

Enpresaren gizarte erantzukizuna: Goiena Komunikazio Taldeak sozialki enpresa arduratsua izan nahi du. Hori dela eta, arreta berezia jartzen da langile, bezero, hornitzaile eta gizarteko hainbat eragilerekina.

Gizarte dimentsioari dagokionez bi konpromiso hartu ditu Goienak bere langileekiko:

- Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna.
- Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak: ordutegi malguak, lanaldi murrizketa, lanpostua egokitzea, etxetik lan egitea, ordu pilaketa egun libreak lortzeko...

Ohiko osoko bilkurak grabatu eta bideo-aktak sortzeko proposamena

Goiena Komunikazio Taldea Koop. El. enpresak **giza eskubideak eta bizikidetzaren** gizalegezko balioak errespetatzen ditu. Aldi berean informazio-askatasunari errespetua zor dio eta baita emakumeen eta gizakien arteko berdintasunari, hizketa sexistarik ez erabiliz. Hau dena, Goiena Komunikazio Taldeak propio egindako **estilo liburuan** aurki dezakegu.

Lan-arriskuen prebentzio plana du eginda, eta Spril enpresarekin kontratua du.

Erantzukizun zibila babesten duen asegurua du LAGUN-ARO enpresarekin kontratatua.